

AURKI ITZULI

Orain dela denbora asko, nik alde egin baino lehen, nire amak esan zidan:

- Aurki itzuli!

Eta besarkada handi batekin utzi ninduen trenaren geltokian.

Ez nekien nora nindoan eta zenbat denborako, baina ezin nintzen Altsasun geratu!

Tren geltokia toperaino zegoen, jendea joan eta etorri zebilen. Eta ni geltokiko bankuan eserita nengoen itxoiten, bat-batean, bozgorailuan hitz majikoak entzun nituen:

“Irun helmuga duen trenak bost minutu barru egingo du sarrera, hirugarren nasean”

Maleta hartu nuen eta harantz abiatu nintzen; azkenean trena iritsi zen eta ahalik eta lasterren sartu nintzen barrura. Leihoaren aurrean zegoen eserleku batean kokatu nintzen burumakur.

Minutu batzuk eta gero trena martxan jarri zen, poliki-poliki geltokia utzi zuen. Bat-batean, ikusi nuen, bai, hantxe zegoen! Beste trenbidetik pasatzen zen trena, ez zen edozein tren! Nire aitak gidatzen zuen trena zen! Gure begiradak topo egin zuen segundu batzuetan eta gero ezer...

Nire begiradak gaduta jarraitu zuen Iruneraino ailegatu arte. Irungo geltokian, muga pasatu aurretik, nire aitari buruzko oroitzapen txarrak burutik ezabatzea erabaki nuen.

Geltokiko nagusiak nire pentsamenduak apurtu zizkidan txilibituaren soinuarekin.

Urte batzuz munduan zehar ibili nintzen. Lan asko egin behar izan nuen, baita asko ikasi ere, batez ere margotzen ikasi nuen. Hori izan zen nire desioa eta urte asko geroago lortuko nuena.

Urte horietan, amarekin kontaktuan jarraitu nuen, oso ondo gainera, amak beti agurtzen ninduen horrela:

- Aurki itzuli!

Inoiz ez genuen aitari buruz hitzegiten eta, halako batean, ezer gehiago! Amaren deia ez zen iristen eta bere gutunak ere ez. Denbora askoan berarekin kontaktatzen saiatu nintzen baina, alferrik!

Urteak pasa eta gero, Altsasuko ezagunekin nituen harremanak galdu nituen, horregatik ez nekien nori deitu edo idatzi!

Egun batean, etxera bueltatu nintzenean, gutonontzia irekitzerakoan gutun bat lurrera erori zen. Hartu eta bidaltzailea ea nor zen begiratu nuen, Altsasutik zetorren baina ez nuen hitz ezagunik ikusten. Azkenean, kartazalaren atzealdean igorlea "Josefina Arregi" zentroa zela ikusi nuen.

Gutuna ireki eta arretaz irakurri nuen:

"Berastegi jauna:

"Josefina Arregi" zentroaren zuzendaria naiz eta, gutun honen bidez nor garen eta zergatik idazten dizugun azaldu nahi dizut.

"Josefina Arregi" zentro psikogeriatriko bat da eta, orain dela 3 urte, zure Alzheimerraren aurkako tratamendua ematen hasi ginen. Zure ama ados zegoen tratamendurekin eta orain arte bere aginduak jarraitu ditugu. Baina, momento honetan zure ama, zoritxarrez, ez dago eta zu zara bere ahaide bakarra. Horregatik zure aginduak behar ditugu eta hona etortzeko eskatzen dizut, zure aitarekin zer egingo dugun jakiteko.

Zure bisita espero dugu ahalik eta azkarren, eta aukera aprobetxatu nahi dugu gure dolumin bizienak emateko eta hura agurtzeko.

Adeitasunez,

Zuzendaria”

Gutun hau irakurri eta gero, bertan geratu nintzen denbora luzean, erreakzionatu gabe. Eta orduan argi ikusi nuen ama hila zegoela eta Altsasura itzuli beharko nuela. Nire burura berriro etorri ziren amaren hitzak: - Aurki itzuli! Zenbat denbora pasatu zen orduztik? Ez nekien...

Berriro nengoen Altsasun, tren geltokian; baina, orain inor ez zegoen. Nire maleta hartu eta Mendia jatetxera abiatu nintzen, han taxi bat eskatu nuen. Eskerrak emanez taxia hartu nuen eta aldapa gorantz abiatu ginen, Donibane kalean zehar dena ezberdin zegoela konturatu nintzen. Bat- batean, taxia gelditu egin zen:

- Josefina Arregi zentrora heldu gara, jauna.
- Hemen itxoin, mesedez- esan nion taxi gidariari.

Zentrora sartu nintzen eta zuzendariarekin hitzegin nahi nuela esan nion harreragileari. Denbora gutxi geroago gizon gazte bat agertu zen eta hauxe esan zidan:

- Ongi etorri Berastegi jauna! Zure zain geunden. Nire izena Jesus da eta zuzendaria naiz.

Esertzeko eskatu zidan eta denbora luzez nire ama nola hil zen kontatu zidan eta, batez ere, nire aita nola zegoen momento hartan. Konturatu gabe, berandutu egin zen, ni oso nekatuta nengoen eta biharamunean nire aita ikusi nahi nuela esan nion. Baietz esanez agurtu ninduen gutunazal bat emanez.

- Eta orain nora?- galdetu zidan taxi gidariak aspertuta.
- Jose M^a Ezkurra kalera, mesedez.

Gutunazalean nire gurasoen etxeko giltza zegoen. Atea irekitzerakoan, haurtzaroko ez dakit zenbat oroitzapen sentitu nituen. Akituta oheratu nintzen.

Hurrengo egunean, goizeko lehen orduetan altxatu nintzen eta etxe osoan zehar ibili nintzen gogoratu eta gogoratu. Ni joan ondoren, nire aitak etxeko gela bat hartu zuen bere trenen maketak egiteko eta han, mahai txiki batean aurkitu nuen gutunazal bat nire izenarekin. Baina, gutun hori ez zen aitarena, amarena baizik. Gutun bat utzi zidan agur gisa eta bukaeran idatzi zuen: "*zure aitak eta nik asko maite zaitugu*" eta berriro: "*Aurki itzuki!*".

Halako batean, horma batean zegoen koadroa ikusi nuen, haurtzaroan nire aitarentzat margotu nuen koadroa. Koadroaren atzean segurtasun kutxa txiki bat aurkitu nuen, baina ez nekien zenbaki sekretua. Dena den, Josefina Arregi zentrora joan behar nuen, horregatik itzulitakoan begiratuko nuen.

Klinikara ailegatzerakoan sendagile batek eraman ninduen aita bisitatzera. Haseran ez nuen ezagutu baina, bai, bera zen. Han eserita zegoen, oso zaharra baina tente-tente begiratzen ninduen. Bere aurrean jarri nintzen eta orduan oso serio galdetu nion:

- Badakizu nor naizen?

Ez zuen ezre erantzun eta nik berriro:

- Badakizu nor naizen?

Baina, alferrik! Orduan sendagielak esan zidan nire aitak ezin zuela hitz egin eta joan egin zen.

Bere ondoan geratu nintzen denbora luzez pentsatzen zergaitik joan nintzen eta orain ezin nuela berarekin hitz egin. Beno, hobe esanda, ezin nuen jakin zer pentsatzen zuen niri buruz.

Etxera itzuki aurretik elizara abiatu nintzen, enparantza oso aldatuta zegoen; intxaurrondo zaharra jada ez zegoen, orain eskultura bat zegoen intxaurrondo zaharrarekin eginda eta beste intxaurrondo gazte bat elizaren

aurrean kokatuta zegoen. Gero, kiosko zaharra desagertuta zegoen eta orain, leku berean, kiosko moderno eta itsusia kokatu zuten.

Etxean berriro, segurtasun kaxaren zenbakiaren arrastoren bat bilatu nuen, baina alferrik!

Egunak pasatu ziren eta eguraldia paseatzeko aproposa zegoen, orduan, klinikan nire aita ateratzeko baimena eskatu nien. Aitarekin zelai batean zehar abiatu nintzen udaletxerantz, baina "Gobernadorearen etxea"ra ailegatu ginenean gauza arraro bat ikusi nuen. Gobernadorearen lore-baratzean ia ia ez zegoen zuhaitzik, baina, tren makina berde-berdea zegoen kokatuta frontoiaren ondoan.

Hasieran ez nuen ezer ulertu eta bertara hurbildu nintzen. Hurbildu ginenean aitaren begirada aldatu zen. Baina zer egiten zuen makina horrek lore baratzean? Galdetu nion emakume zahar bati, trenaren ondoan eserita zegoena, eta berak hau kontatu zidan:

- Zaragozatik Altsura etorri naiz nire bizitzaren bukaeran, 4 hamarkada bitartean triki-traka ibili naiz. Sunsundegi lantegira orain dela 6 hilabete ekarri ninduten erreabilitazioa egiteko, baina nire neurriekin (16 metro luze naiz eta 80 tonako pisua dut), ezin dute ezer gehiago egin. Horrexegatik baratzako enparantzian nire bzsitza bukatuko dut. 5 zuhaitzen mozketa behar izan da nire hilkutxa prestatzeko. Gaitera, balio handiko artelana naiz, 60000 euro kostatu da ni egitea. Bakakizu nor naizen?
- Eeeeeee
- Mitsubishi 7093 deitzen didate.

Bat-batean, emakume arraro hori desagertu zen.

Aita klinikan utzi nuen eta etxean nengoenean emakumeaz gogoratu nintzen. Zer kontu bitxia kontatu zidana, eta hau gogoratzean, ikusi nuen agian, kutxa irekitzeko kodea izan zitekeela...

- 4 hamarkada neramatzan Altsasutik kanpo.

- 6 hilabete pasa dira amaren heriotzatik.
- 16 Jose M^a Ezkurra kalea, 16 zenbakia.
- 80. hamarkadan joan nintzen etxetik.

Erokeria bat zela pentsatu nuen, baina zergatik ez frogatu? Aita 7093 tren makina batekin ibili zen!

Oso urduri abiatu nintzen koadrorantz eta zenbaki horiekin saiatu nintzen kaxa irekizen, baina ezer!

Zenbakiak errepasatu nituen eta konturatu nintzen zenbaki bat falta zitzaidala: 5 zuhaitzen mozketa.

Berrito saiatu nintzen eta orain bai, orain kutxa ireki zen. Bere barruan 60000 euro zeuden eta aitaren gutun bat nire izenarekin. Gutuna hartu nuen eta irakurri egin nuen. Aitak barkamena eskatzen zidan garai hartan nire homosexualitatea ez zuelako ulertu eta asko maite ninduela ezin izan zuelako esan.

Niretzat kutxako altxorra gutun hori izan zen. Horrela jakin nuen aitak bazekiela nor nintzen garai hartan eta baita orain ere; bere begiradak dena esaten zuen. Eta ni, azkenean, etxera itzuli nintzen ez aurki, baina, bai betiko. [^](#)